

toria de aquellos opulentísimos imperios; las ruinas de Iruña todavía no han sido desenvueltas, y yo espero vendrá un tiempo en que nos entreguen la clave del enigma.

HE DICHO.

## GERNIKAKO ARITZARI

ON JOSÉ MANTEROLA JAUNARI.

*«Zazpi urteko doakabeak ez dute igartu Gerni-  
kako aritza, ez eta ere itzali, Euskaldun guztiyan  
berari dioten maitetasuna.»*

<p>Euskal-Erriyan ¿zer gertatzen da?<sup>1</sup> ¿Zergatik dago pozturik? ¿Zergatik daude len uchalduak <sup>1</sup> Zeuden zelaiyak, apaiñik? ¿Zergatik daude choritaldeak Pozkidaz oso beterik, Alositzuzko <sup>2</sup> soñu gozoak Alkarren leiyen kantarik?</p> <p>¿Zergatik dira lore tartean Pozez gordetzen ibaiyak? ¿Zergatik belar likurtadunez <sup>3</sup> Jantziten dira mendiyak? ¿Zergatik dira gure gañetik Aldendu pizkor odeiyak, Utzirik, biral ditzala Febok Gugan errañu biziyaq?</p> <p>Mingarriya zan len iturriyak Egiten zuten murmurra; Naigabezkoa baso tartean Aizechoaren surmurra;</p>	<p>Negargarriya gure lurreko Aurren zizpuru samurra; Zirudiyen ¡ai! gure biyotzen Nagusi zala bildurra.</p> <p>Aritzak zeuden ostorik gabe: Zelai guztiyak leporrik; Mendiyak ere beren kopeta? Jachitzen zuten umillik; Ikusirikan Euskal-erriya Samintasunez beterik, Dolgaintzen<sup>4</sup> ziran ibar gureak Apaingarriyak kendurik.</p> <p>Zugaztiyetan kabiya duten Errechiñolen kantuak, Ziran tristuraz arkituzten dan Choricho baten lantuak; Gure biyotzak, entzunik ayen Zizpuru negar mintsuak, Bigundurikan gelditzen ziran Penaren penaz lertuak</p>
--	---

(1) Marchito.—(2) Armonioso. —(3) Aromático. —(4) Enlutarse

Len naigabea; gaur atsegiña;  
 ¿Zér zaigu bada gertatu?  
 ¿Zergatik dira gure nekeak  
 Añ bat batera gozatu?  
 ¿Zér ikuskerak, bada, gaur ditu  
 Euskal-biyotzak, alaitu?....  
 ¿Zergatik danok, penak azturik,  
 Degu pozkidaz kantatu?

Ikusi degu ostoz jantziten  
 Asirik aritz maitea;  
 Ikusi degu ¡bai! lora-motez  
 Berriro dana betea;  
 Au ikusirik, biralirikan  
 Gure barrendik nekea,  
 «Euskal-erriya»—esaten degu —  
 »Badatorkizu pakea.»

¡Aritz ederra! loretu zaite,  
 Gal-gabe zure moterik,  
 Euskal-arraza gelditu dedin  
 Otsare <sup>1</sup> biziz beterik.  
 Ikusi zazu nola dagoan  
 Euskara zarra goiturik,  
 Nola gauden gu, bere semeak,  
 Ama biyotzez maitarik.

Ikusi zazu Zeru garbiyan  
 Euskal-artizar <sup>2</sup> argiya;  
 Ikusi zazu mugidagabe  
 Itsaso zabal aundiya;  
 Ikusi zazu lorez jantzirik  
 Basoa, chara, zelaiya;  
 Beretan pozez chiruliruka  
 Luma kizkurdun choriya

Guztiyak gaude pozez beterik  
 Aitor-en erri donsuan,  
 Esperanzaren <sup>3</sup> argiyarekin  
 Suturik poza barruan,

Esperanzaren izar ederra  
 Ikusi degu Zeruan;  
 Artizar orrek zuzendaturik  
 Biziko gera munduan.

¡Ai! nik banuke gizon argiyen  
 Etorki suzko naroa, <sup>4</sup>  
 Kantatutzeko bear bezela  
 Zure kondaira gozoa.  
 Esango nuke zerala gure  
 Biyotzen amets osoa  
 Zuri dizugun maitera dala  
 Sortzetik gugan jaiyoa.

Esango nuke, zure naiyeraz  
 Euskaldun zarrak pozturik  
 Beren barruari zuten ausartza <sup>5</sup>,  
 Berdingabea suturik,  
 Joaten zirala etsaiyengana  
 Bildurra zer zan azturik,  
 Joaten zirala, zaldun azkarrak  
 Buruzaritzat arturik.

Esango nuke, begiratzean  
 Zure garraie <sup>6</sup> goitua,  
 Ikusitzean intzez bustirik  
 Egun-sentiyan ostua,  
 Zerutik dala gugana jasten  
 Aingeru baten kantua,  
 Esanaz: «Jaiki, poztu zaiztezte,  
 Aritza dago piztua».

Aingeru baten itzak dira ¡bai!  
 Or ditugunak aditzen,  
 Bada, gozaro zerutar batez  
 Berak gaituzte betetzen;  
 Gure biyotzak maitasun aundi  
 Gartsu bat dute sentitzen,  
 Eta, non gauden ez dakigula,  
 Gera lurrean auzpezten.

(1) Entusiamo.—(2) Estrella del Norte.—(3) Echendea.—(4) Fecundo.—  
 (5) Valor.—(6) Copa.

Non auzpezturik, Jaungoikoari  
Biyotzez esker emanik,  
Gauzkalako gaur gozotasunez,  
Pozez, otsarez beterik,

Otoitz egiñik, eska diogu  
Gorde zaitzala Zerutik,  
Mundu au dana desagiñ arte,  
Osto mardulez jaritzirik.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

Uztailaren 21.<sup>an</sup> 1883.<sup>an</sup>

## ERRECHIÑOL BATEN ARRENKURAK.

—¿Zergatik zaude, kantatu gabe  
Otseztitzuzko soñuak?

¿Zergatik zaude mututurikan,  
Tristetzen gure barruak?

¿Zergatik dago mugitu gabe

¿Zergatik! zure mokoa?

¿Zergatik zalbiltz, arkitu nairik  
Eskutatzeke sokoa?

¿Ez dezu ikusten nola zelaiya  
Dagon lorechoz beterik?

¿Nola zuaitzak dauden bertistez<sup>2</sup>  
Apaingarriro jantzirik?

¿Nola loreak zabaltzen duten  
Beren aldean usaiya,  
Galaiturikan ondoan dagon  
Leyar-iturri <sup>3</sup> biziya?

¿Nola kardinchak, birigarroak  
Ta beste chori guztiyak  
Dauden kantatzen chit gogotikan  
Soñu gozotsu poztiyak?

—Guztiyak ditut ikusten, baña...

Biyotza daukat tristerik;  
Eziñ arkitu det atsegiñik;  
Urrun da poza nigandik.

—Errechiñola ¿zer dezu bada?

¿Zergatik zera tristetzen?

¿Zergatik pozak iges egiñik,  
Pena da zutzat jabetzen?

—¿Zer?.. ¿Zer?... galdu det ainbes-  
Nuan kabicho gozoa, [te maite  
Kendu dirate atzerritarrak<sup>4</sup>  
Ni jayo nintzan chokoa.

Orregatikan nago gaur penaz  
Eta naigabez beterik,  
Orregatikan ez det arkitzen  
Neretzat iñon gozorik.

Ez daukat pozik, zergatik nagon  
Kabichuloa galdurik;  
Ez daukat pozik, nagoalako  
Amarik gabe, bakarrik.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

1883-ko Uztaillean.

(1) Quejas.—(2) Esmeralda.—(3) Fuente cristalina.—(4) Estraños.